

14/01/2016

EUSKAL HERRIA

Olatuekin lez gozatzuz ireki du txotx garaia Aritz Aranburuk

Ohiturari eutsiz, «hau da gure sagardo berria!» oihukatuz ireki zuen txotx denboraldi berria Aritz Aranburu surflariak. Guztira hamahiru milioi litro ekoitzi dira, %60 eta %70 artean bertako sagarra erabiliaz. Emaita: kolore ilunagoa, freskoa eta graduazio altuxeagoa.

OIHANE LARRETXEA | ASTIGARRAGA

IMPRIMIR

ENVIAR



Sagardotegiak ez dira arrotzak Aritz Aranburu surflariarentzat. Are gehiago, urte osoan hango eta hemengo itsasoetan taula kuttunarekin murgilduta ibiltzen bada ere, garaiotan «etxean» egon ohi da. Patxada sasoia hainbat gauza egiteko aprobetxatzen du, tartean, sagardotegira joateko lagunekin zein familiarekin. Gustu handiz, «ilusioz» ireki zuen atzo 2016ko txotx denboraldia Hernaniko Zelaia sagardotegian, tradizioak agintzen duen moduan, «hau da gure sagardo berria!» oihuarekin.

Aldez aurretik, arretaz jarraitu zituen eman zizkioten argibideak: edalontzia hartu hatzekin, ez dadila estali barruko zukua eta egin oihu gogoz. Eta azalpenen garrantzia onartu arren, «naturaltasunez» egitea garrantzitsuena dela iritzi zion. Sabela txorizo mutur batekin lasaituta, denboraldia noiz ireki irrikaz zegoela aitortu zion GARARI, eta ekitaldiak ekitaldi, sagardotegira bixita bat edo beste egitekoa dela datozen asteetan.

13 milioi litro sagardo

Aurten dastatuko den uztak ekarri ditu hainbat datu, eta esanguratsuak gainera. Orotara 13 milioi litro ekoitzi dira, batez beste %60 eta %70 artean bertako sagarrarekin egina, atzoko prentsaurrekoan adierazi zuten bezala. Gainerakoa kanpotik ekarritako sagarra da. Sagardogileen apustua zein norabidetan doan begi bistakoa da; izan ere, 2014ko sagardoa egiteko, %45 izan ziren bertako sagarrak.

Ezaugarri dagokionez, txinpartaduna, orekatua eta borobila ahoan, freskoa eta fruitu zaporeduna. Hasierako eta ondorengo sagarrekin egindako zukuen artean ezberdintasunak ere badaudela esan zuten.

Txantxetan, handitzen ari diren zifrekin akaso berak zerikusia duela iradoki zuen Aranburuk. Ozeanoaren beste aldera sagardoa eramaten duela-eta, agian horregatik igo direla eskaerak. «Hala bada, Hawaii eta Australiara ere eramango ditut botila batzuk», esan zuen, atzeritarrek edariarekin baita sagardotegiekin ere «txundituta» gelditzen direla aitortuz.

Bada, irekita dago dagoeneko txotx denboraldia. Atzerritarrek bakarrik ez, bertakoak ere txundituta gelditzeko.

Ekoizpenaren %95 Gipuzkoan egin da. Lurraldeka, Bizkaian 250.000 litro ekoitzi dira, 100%a gainera bertako sagarrarekin. Araban eta Nafarroan 120.000 eta 200.000 litro egin dituzte, hurrenez hurren, sagardogileek.

Urtarrilaren 25ean hasi
eta txotx denboraldia
amaitu arte, autobus
zerbitzu berezia egongo
da «ondo pasatu eta
txukun bueltatzeko». Bi
irteera egingo ditu
gauero, 23.30ean eta
00.30ean
Astigarragatik eta
00.00etan Donostiatik.

[illegible]



HEMEROTECA **GARA** HASTA 12/11/2013

HEMEROTECA **GARA** DESDE 12/11/2013

PUBLICIDAD



naiz: AZKENAK

@naiz_info(r)en Txioak

▶ INFO ▶ EUSKAL HERRIA ▶ MUNDO ▶ ECONOMÍA ▶ DEPORTES ▶ CULTURA ▶ IMÁGENES ▶ VIDEOS ▶ AUDIOS ▶ EL TIEMPO	▶ OPINIÓN ▶ EDITORIAL ▶ ARTÍCULOS ▶ TASIO ▶ AL DIRECTOR ▶ BLOGS	▶ NAIZ+ ▶ FACEBOOK ▶ TWITTER ▶ BLOGS NAIZ+ ▶ GOOGLE+	▶ AGENDA ▶ ENVIAR EVENTO ▶ CULTURA ▶ MÚSICA ▶ NIÑOS ▶ OCIO ▶ TABLÓN	▶ ESPECIALES ▶ NUEVO TIEMPO ▶ LINEA DEL TIEMPO ▶ DONOSTIA 2016 ▶ ZINEMALDI 2014 ▶ FÚTBOL ▶ BALONCESTO ▶ GURE ESKU DAGO ▶ M25 ELECCIONES ▶ SANFERMINES	▶ REGISTRO ▶ SUSCRIPCIÓN ▶ CONTACTO ▶ PUBLICIDAD
---	---	--	---	---	--

naiz:

- CONTACTO
- QUIÉNES SOMOS
- FAQ
- PUBLICIDAD
- AVISO LEGAL
- RSS